

## Maider Yabarren Takoia airean ikuskizuna 12an Igorreko Kultur Etxean

12. orrialdea

## Gazteak Aratusteen bultzatzaile

Gizarte osoak parte hartu arren, gazteak dira Aratusteen antolatzaile eta bultzatzaile nagusiak gurean. Igorren, Arratiko Zekorrek Rugby Taldeak antolatu dauz martiaren 5eko ekintzak. Areatzan, Fraka Zuri Gazte Asanbladakoak. Eta herri guztietako eskoletan egingo dira mo-zorro festak. **12. orrialdea**



## Atutxa II. binakako Eusko Label Txapelketan irabazle

10. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 138

2011ko martiaren 2a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Martiaren 8aren inguruko ekitaldiak

Sexualidadearen inguruan antolatu dabe aurten Arratiako feministak martiaren 8aren inguruko ekitaldiak.


**H**itzaldiak, "Andrazkoen sexualidadea" martiaren 3an edo "Abortua mobimentu feministaren ikuspuntutik" martiaren 21ean; tailerrak "Gure gorputza, gure sexualidadea birpentsetan" hilaren 18an, antzezlan bi *No es tan fácil* hilaren 5ean eta *Baginaren bakarizketak* 26an, zinea, afaria eta beste ekitaldi asko.

Egitarau bateratu antolatu dabe aurten hirugarrenez, Arratiako hainbat Udaletako sail eta arloak eta andra taldeak eta talde feministak. Holan, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa eta Zeanurik parte hartu dabe eta he-

ri honeetan guztietan egingo dira Arratia osoko herritarrai zuzendutako ekitaldiak.

Nobedade moduan, aurten Arratiako Emakumeen I. Mendi Martxea Gorbeira egingo da hilaren 13an. Gura daben andra guztiak parte hartu ahal izateko, sasoi dagozanak zein hain sasoi ez dagozanak, ibilbide laburra eta ibilbide luzea egingo dira, eta ostean, indarrak barritutako koptuxua Areatzan.

Honezaz ganera, ezin aitatu barik itxi, martiaren 8ko kontzentrazioa 19:00etan Kultur Etxearen aurrean Igorren. **5. orrialdea**



Aldarrikapena eta jaiak martiaren 8an.

### ARRATIA

## Pinu-beldarra parametro normalen barruan

Pinuak kaltetzen dauan beldarraren izurritea parametro normalen barruan dagoala dinoe Aldunditik. Dana dala, Bizkaian 8.500 hektareako baso-masea tratauko dau Aldundiak pinu-beldarraren kontra.

Arratian, pinudi asko gaitz honek jota dagoz. Aldundiak emon dau jakitera, tratamendua zelaz egiten dan: garagarrelean tranpak feromonak eta urri lehenengoan aireko tratamendua. Ganera, beste modu batzuk be erabilten dira, beldarrak jaten dituen txorientzako kajak ipintea, barbarako. Kontu berezia izango dabela parke eta erreserba naturaletako lurretan egiten diran jardueretan, bai eta nekazaritza ekologikoko inguruetan azaldu dabe Aldundiatik. **6. orrialdea**

### ARRATIA

## Udabarria noz helduko zain

Kanporamartxoren ostean sartu gara Aratusteetan. Arratian oraindino Karnabal sasoioko ohitura zaharrak mantenduten dirala dino Jon Urutxurtu historialariak. "Jai honeek, nekazaritza giroko gizarte batentzat garrantzi handiko une bateri jagokoz, neguari hain zuzen be. Sasoi honetan gizakiak bizia barriro etortea gura eta behar dau eta udabarria noz helduko zain dago". **8. eta 9. orrialdeak**

### ZEANURI

## 40 behi eta 15 zekor kixkalita

Zezeilaren 22an, Soloeta auzuneko Itzuna baserrian sute baten ondorioz 40 behi eta 15 zekor kixkali ziran. Sute honen ondorioz izandako galera ekonomikoak handiak izan dira. Abereak ez dira izan kalte material bakarrik, makinak be erre ziran sutean, tartean ekarri barria zan "enbaladorea, 5 milioe eta 6 milioe" artean balio ebana Iturbe jaubearen berbetan. **6. orrialdea**

Labastida • Rioja Alavesa

# SOLAGÜEN

**EGUEN**  
gastronomikoak

Igorren, arratiarrok merezidu dozuelako.  
Martia, aprila eta maiatzean.

pintxo  
+ Rioja

2€

## GEURE BERBATEGIE

## 'Geure Berbategie'

JUANTXU REKALDE  
ANGEL LARREA

## ARTZAINAK

Larria da, gaur egun, gure landa-eremuaren egoera. Solo eta barruti asko ikusten dira bedar zahar eta sasiakaz. Artaldeak dira bazter eta ingurumarien garbitzaileak, edonon, ikusi geinkezanak. Ardien presentzia oso zaharra da Euskal Herrian, Neolitikoa sortu zantetik (4.500-3.200 K. a.)

ezagutzen da artzaintza euskaldunen artean. Artzaintzan, ohiko errebatuak ez dira izan ugariak, ehun buru inguru edo gitxiago. Honeek txabolea eukiten eben Gorbeialdean; hogeitahamar buru inguru eukiezanak etxetik hur mobiduten ziran eta euren artaldeai motxinoak deituten jakien. Sasoi honetan, zezeila-martia bitartea, ardien kumeak edo azuriak jaioten dira. Eta urtebete egin arte edo, gitxienez, amearen esnea hartzean itxi arte, bildotsak

deituten dira.

Erlijino kristinauaren eta Eleizearen eraginagaitik, Pazko Egunean artxoa, hau da bildotsa, jatea ohitura handia da, artxoaren okelea oso estimadua dalako. San Juan egunaren inguruan lanea moztuten jakie ardiak -orain dala urte gitxi arte ardi-artaziakaz, gaurko egunean makineagaz egiten da-, holan udako beroak hobeto eroateko. Lanearen prezio onak koltxoi modernoerrotreagaz joan ziran.

Gurera bueltatuz, udabarriaren amaieran eta udan zehar, ardiak gora erroten dira, mendiko bedar freskoak jatera. Goietan egoten dira pastoreak uda guztian ardi-esneagaz gaztaiak egiten, eskuz edo gehiago pre-seagaz. Udagoienaren sarrerean, San Mateotan edo, aharitoen denporea da, ardiak ernaltzeko sasoi. Umerik egiten ez daben ardiak motxinoak edo antzuak deituten dira. Honeek bereiztu egiten dira taldetik loditu daite-

zan, gero okelarako saltzeako. Udagoiengan zehar jaisten dira ardi-errebainuak etxe-ingurura negua kortan pasatzera; horretarako, bedar sikua erosi edo euki behar da gordeta eta emoteko prest, ze kanpoan ez dago ardiak jateko bedarrik. Ziklo natural hau urteak joan urteak etorri beti errepikatu izan da; orain, barriz, beharleku tradizional guztiak kolokan daukaguz, bizimoduak aldaketa handia egin dualako azken hamarkadetan.

## TELEFONO INTERESGARRIAK

## Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

## Guardiako Farmaziak

## Zezeilaren 28tik martiaren 6ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54

## Martiaren 7tik 13ra

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

## Martiaren 14tik 20ra

Vargas. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 696 782 189

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

## Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 94 631 31 16

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

## Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 94 631 30 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

## Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

## Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

## Parketxea

94 673 92 79

## Abertzaletasunaren Museoa

94 631 72 51

## Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

## Gazte Informazio Bulegoa

94 673 62 51 eta 639 018 133

## Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

## Trenak

Euskotren 902 543 210

## Bizkaibus\* 902 222 265

## Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

## Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengoa zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

## Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubideetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi orduko behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi orduko behin.

## Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

## Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi orduko behin.

## Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00. Domeketan ez dago zerbitzurik.

## Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45. Zapatuetan ez dago 05:45eko. Domeketan ez dago zerbitzurik.

## Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

## Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean. Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

## La Union\* 94 427 11 11

## Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

## Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean. Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

## Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa

Bilko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

bbk



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino taldea: Urtzi Barrenetxea, Maitane Diez, Ainhoa Duñabeitia, Maialen Egileor, Irune Garcia, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Iñigo Iruarizaga.

Publizitatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milkua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tirada: 6.400 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.400 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

## ZEURE BERBEA

### Martiaren 8aren aurrean irakurketea

Indarkeria sexista, andrak gizonengandik menpekotasun egoera baten mantentzeko tresna bat izan da eta oraindino be bada. Baita Igorren be. Erantzukizuna ez da erasotzailearena bakarrik, baita andranganako indarkeria legitimizatzen eta "uler-tzen" daben esterotipoetan oinarritutako patrioiak iraunarazoten dabenena be. Indarkeria mota honen desagertzea erakunde guztien, agente sozialen eta uritarren ardura da.

Azken lau urteetan, Igorren izandako eraso matxisten salaketak hainbat izan dira: bortxaketea, urrutze aginduak, tiroketea, bizkartzaina, erreformategia...

Horregaz amaitzeko ahaleginean eta andra ta gizonen arteko bardintasunerantz behar egin behar dogunaren ustetan, horre-

tan gabiz Udalean. Eragile sozial eta igorrezarrak plan bat egin da. Plan on bat. Baina planak ez dauka baliorik martxan ipinten ez bada. Planaren diseinuan 112 igorrezarre hartu genduan parte eta bertan agertzen da plana martxan ipinteko langile bat kontratatuko beharra. Plana martxan ipinteko jardunaldi erdian persona bat kontratatuko proposamena eroan genduan abenduan plenora. Zoritxarrez, EAJ eta Igorre Danontzat-ek kontrako botoa emon eben.

Abendutik hona, goian aitaturtutako gertaera bat izan da. Langilea kontratau arren, bardin gertau leikean baina ez daigula kalte handiago bat sentidu behar, eraso honek amaitzeko neurriak hartu barik.

Igorreko gizon eta androk me-rezidu dogulako, neurriak hartu daiguzan!

#### IGORREKO EZKER ABERTZALEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## ERETXIA

### Legeak

**A**smo onen ganetik, proposamen akraten edo beti txalogarria dan alkartasun global eta muga bakoaren ganetik, egia da gure giza naturak egunerokotasuna arautzeko legeak ezartzera behartzen gaituala, ez da eta berez oso bertutetsua. Lege horreetan guztietan, jakina da, zigorrak be badau bere lekua; izan be, ez daigun geure burua engainau, *ezarri eta zigortzeko* formula zaharrak besterik ez dau funtzionetan hemen, zigorra arina izan (diru-zigorra) zein larria (askatasuna murriztea). Gizartea bera bezain zaharra eta saihestezina da gizartearen funtzionamentua lege arautu beharra. Horrela da, azken milurtekoetan ez da aldatu eta orain be ez dirudi aldatuko danik. Baina egia da, modu berean, teoria eta praktika larregitan bide desbardinatetik joaten dirala, eta batzuetan ez dabela alkarren barririk izaten.

Hainbat lege betetzeak zergaitik dauka komunitatearen zati handi baten babesa eta onespina, zalantza barik (hedabide ahalguztidunena, klase politikoarena eta administrazio sarearena barne), eta beste batzuk betetzea, ostera, betiko ahaztuko doguzala iruditzen jaku? Jakin badakigu gizarte demokratiko baten (zuzenbide estadia deitu izan dana, zeozelango handitasun kutsuagaz) arau guztiak zorrotz bete behar dirala, batez be emon dituen erakundeak bete behar ditue zorrotzen, izaerea, apliketako eremua zein garrantzia mailari erreparau barik; ostera, helburuaren funtsa bera galdu egiten da.

Ipini daiguzan adibide batzuk, batetik eta bestetik, behin eta barriz goraitututako demokrazia sarri erretorika hutsean geratu, eta beste batzuetan ajolabakokeria egoera honetan ei gagozan sensazioa apur bat luzatzeko pilula baino ez dala izaten irudikatzen. Ospetsu bihurtu dan tabakoaren



### KEPA TAMAMES

ATEAko kidea (Animaliakazko Tratu Etikoaren aldeko Alkartea)

legeaz nabil, taberna ziztrinenean be zigarrotxu bat erretzea galarazoten dauan lege horretaz (esapidea errespetuaz gan, maitasunez idatzi dodala be ulertu); leku horreetan porro erretzaileak eta kale filosofoak aspaldi-aspalditik biltzean dira mundua konpontzen. Orain guztiak kale gorian dagoz, hotza hazurretaraino sartuta baina batez be, umilatuta dagoz, goizetik gauera izurritsu barriak bihurtu dira, orain tumore bakarra daukiela: tabako paketea.

Hasiera-hasieratik, eta hainbat heroien salbuespenak alde batera itxita, miloika herritarrek legeri men egin eta negu gorriara ateratu dira guztiz etsita, goiz, arrasti eta gauero jarioa aguantau behar izan eta gero, astez aste, irrati eta telebistetan, dobako publikidade kanpaina inbidiarriak. Beste batzuei be gustauko litxakigu publikidade zerbitzu hori izatea. Oraingo honetan legea bete da, (hobe dogu legea betetzea, bestela...), bai isunakaitik, bai guztiok bete-bete harrapatuko ei gaituan osasun tsunamiagaitik. Aurreikuspen ofizialen arabera, araua dala medio gixienez milioi bat personak erretzeari itxiko deutso. Alde batera itxiko doguz ikerketa eta emoitza horreek adituak zereko zeretik ateratzen dabenak (eta barkatu horren gordin berba egitea). Bildur naz ikerketa horreetan ez ete diran bazterten "egin behar dozu" zerrendea luzatuko daben beste faktore batzuk: bezeroak galtzea (hau da, diru-sarrerak, krisialdiagaz ganera...), leku pribaduetan tabakoaren eragina handiagotzea, ditxosozko berogailuakaitik karbono dioxido isuriak gehitzea, eta orokorrena, *mala ostia* be gure

artean zabaltzea. Orduan, guztia kontuan hartuta, bata besteagaitik eta alderantziz, gengoan moduan geratu gara, eta oraindino gehiago, horrenbeste osasun altruismoak ez dau merezi, uzta hutsaren hurrengo izango bada.

Lehenago iragarri dodan beste adibidea Animaliak Babesteko Legea da. Artikulua idazten nagoanean, legeak hamazazpi urte baino gehiago ditu, eta ez da inoiz bete, ezta oinarritzko arau sinpleenetan be. Hamaika animalia gaixo daukaguz betiko metro eta erdiko kateak lotuta, etxe moduan txabola zahar, hotz eta babesbakoa daukiela, bakardade ilunenean bizitera kondemata. Gure kale merkaduak elikatzen jarraitzen dabe, jagokon alkartasun kutxan txanpona itxi ostean burua tente eta bularra aterata ibiltzen diran giza olatuaz bildurtuta. Animalien alde etenbarik burrukan dabizenak ez dabe etsi, eta araudia betetzea gura dabe, zer hori baino oinarritzkoago, eta, ahal izan ezker, legea emon eben erakundeak bete daiela eskatzen dabe, oraindino legea zergaitik emon eben ez dakigun arren. Alkate ohi bat be gogoratzen dot, harro, mikrofono aurrean esanez bere herrian txarria zozketatzen jarraitzea baimenduko ebal, "aspaldiko ohiturea zalako" eta Udalak egokion isuna jasoko ebal. Nik dakidala, Udal horrek ez dau inoiz zigorrak edo isunik jaso. Legebiltzarrean nagusiak berbea hartzean dauanean ikusi daikegu alkate ohi bera, ondo orraztuta, ederto babestuta, inork belarrondoko bat emon ez deion.

Horrelako gizartea egin dogu, batzuek sortu egin dabe eta beste batzuek baimendu, hemen inor ez dago eta erantzukizunetik salbu. Erakundeen lotsabakotasunak herritarren pasibotasuna behar dau, gauzatzeko eta indartsua izateako. Ying eta yang-aren teoria zaharra osasuntsu loratzen da giza krudakeriak infektetan dauan edozein txokotan, ekialde urrunean aspaldi identifikau eben arren. Badakizue, zaharrak barri gurean be.

**Hotel Arantz**  
Bilbao-Corbal/Ormaiztegui, 22. Bilbo  
Telefono: 94 673 43 28 - Fax: 94 673 43 28

ALKOHOLIKO ANONIMOAK

**ARRATIAKO TALDEA**

Arazoak alkoholagaz?  
Arazoak badaukazuz,  
lagundu ahal zaitugu

**Igorre**

BAITARR EGUNAK: 9:00etatik 22:00etara  
Udaltzako arropetan  
EPA-ko lokalak

KONTAKTATZENO TELEFONOA:  
690 139 044

**BIXER TABERNA**

Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho

**pintura lanak**

Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

AHOLKULARITZA: LEGE-LAN ARLOAN

**ZUZENBIDE**

ZERGA ETA DERU KONSTUKTAN  
ONDASUN HIGIEZINEN  
ASIGURUKETAN

Bilbo Arana, 3. Floor 94 673 71 41 - Fax: 94 673 64 01 - 48140 BILBO

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA**

Instalazio elektrikoak - Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoak

Juan de Ajujagerra 1 Behe 48330 Lemoa  
Tfno-Fax 94 6312576 Mug. 647405115

**AKEITEGIA**

**GAY & LORA**

**IGORRE**

**Pinturas Arratia**

Javi Morato

Tel. 628 443 992

**Recreativos Gubi S.L.**

Angel Larrea

Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

## LUMATUTEN



JULEN GABIRIA

## Protestarako arrazoiak

**K**risia dala-ta, aurrekontuak nondik murriztuko, eta Ingalaterrako agintariak kulturari begira geratu dira. Zehatzago esateko, pentsau dabe 500 liburutegi publiko zarratzea eta beste mordo baten ordutegiak murriztea.

Baina jenteak protesta egin dau, mobilizazioak biztu dira, eta oraindino zer gertatuko dan ez dakigun arren, gauza bat argi geratu da: kultura batzuetan luju eta aisialdi huts lez ikusten dan arren, berau kolokan dagoanean, jenteak kalera urteten dau.

Gurean, liburutegiak funtzino nagusi bi daukiez: alde batetik, umeen neguko babeslekuak dira, euria egiten dauenerako aterpe perfektua; bestetik, gazteen ikasketa-lekuak dira, azterketa-sasoian beteta eta osterakoan hutsik dagozan lekuak. Helduok gauza inportanteagoak daukaguz

egiteko, liburutegira joatea baino. Umeak irakurten dabe gehien, gazteak ikasten dabe gehien, eta helduak dira liburutegiak gehien goraiatzan dabezanak, sekula erabili ez arren.

Atxakia lez erabilten doguz liburutegiak, baina aurrekoan, Bendiako Irakurle Klubera Miren Agur Meabe etorri zanean, itzelezko poza hartu neban: 28 lagun bildu ginan, baina pozik handiena ez zan hori izan, baizik eta herriko neskatxi bi be etorri zirala, eta han egon zirala ordu eta erdian adidi entzuten idazlearen esanak.

Ez naz igarlea eta ezin dot jakin etorkizunean literaturagazko interes bera eukiko daben, baina badakit, ziur nago horretaz, kultura dala futbolak eta Belen Estebanek sortzean deuskuen anestesia mentaletik urteteko bidea, eta ziur nago, egunen baten gure liburutegiak itxiko dabezala esango balebe, ez nintzala izango bakarria kalera urteten. Pentsau gura dot, Ingalaterrako moduko albiste baten aurrean, batek baino gehiagok apurtu gurako leukela lozorro eta hipnosi kolektiboa, nahiz eta jakin, futbolerako dirurik ez dagoala esango balebe, gu baino milaka persona gehiago alkartuko zirala kalean. Edozelan be, lasai danok, ze oraindino inork ez dau frogatu gehiengoak daukala arrazoa.

## EGI BATZUEK AIXETARATZEN



IRATI ASTONDOA

## Gaia jarrita: "Sagardotegia"

1

Entzunda aukingo zenduen gaurko nire gaia hilabete inguru hasi zala jai azkenean heldu da sagardo garaia laster egin beharko da harantza bidaia.

2

Aurtengo sagardoa oindo probau barik baina horretarako badau denporarik joan ezker bildur txiki bat daukat nik enazela bueltauko sobran be badakit.

3

Tortilla ederra eta txuleta labela ondo betetan dogu guztiok sabela demostratuz bakoitzak daukagun nibela minutuan hutsitzen ei dogu kupela.

4

Tripa bete ta gero haxe lehenbizi hango tabernetatik poteatzen hasi ta gero ganadurik dagoen ikusi a! Ta goizalderarte gorputzari eutsi.

5

Hernanin goitik bera ibili ostean beti gertatzen jaku danori ezustean korrika hasi eta aitaren batean autobusa topatu aldozun artean.

6

Bueno egin deusuet plan elegantea ta ahiztu baino lehenau haxe esatea inok pentsatu badau harantza joatea etzatzuela ahiztu ni abisetea!!

## BEGI TXINDORRA

**M**usika apur bat ipini gura izan deusagu zenbaki honeri, eta Pavlov-en bidetik, pentsau dogu jentea jantzan atera ezker, argazkia begiratzan dauanaren buruan musikea hasiko dala jotzen errefleju konduktisteari esker.

Urteteko eta ondo pasetako sasoia da, eta horretarako izakera eta ideologia guztiak jaiak, urteerak, ospakizunak eta kalean egiten diran aldarrikapenak dabiz prestetan. Hor doguz Aratustek, jairik unibersalenak eta gurean horren inguruan Kanporamartxo, Etxerarmartxo eta Aratustek eurak ospatuten doguz. Hor, martiaren 8ko ingurukoak. Egun horreetan aldarrikapenak jai giroan eta lagun artean egingo doguz. Aurten, ganera, gure idiosinkrasiari lotuta Gorbeira urteerea proposatzen da. Mendi taldeak, alkarreak, lagun taldeak eta abarrek be antolatuko dabez urteerak mendira eta sagardotegietara, sagarren sasoia da-eta.

Musika eta jantza, urteerak, eta lagunakaz egoteko sasoia da. Guk plan piloa daukagu.




**Lorategien Diseinu eta Gauzatzea**  
 Ureztaketa instalazioa  
 Mantenua eta Inausketa  
**LORAZAINTZA**  
 Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea  
 Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
 gorosti@gorostisl.com


**Ortodontzia**  
 Implantateak  
 Estetika  
 Marina Urigoitia Aidedkoa  
 Odontologia  
 Bidebarri 1, behea  
 48140 Igome-Bikala  
 T. 94 631 50 39  
 Kalejua Zribaitz 110  
 R.P.S. 21/06

**EXCAVACIONES**  
**MARGOIZA**  
 Iñaki  
 Martín Gorostiza  
 Tel. 607 272 424  
 610 271 128  
 Tel/Fax: 94 433 22 28  
 Ubideratzeak  
 Lurrerauzketak  
 Baso pistak  
 Ur Putzuak  
 Era guztietako hondeaketak  
 Bº URIBE - 48144 ZEANURI  
 e-mail: margoiza@euskonet.net

ARRATIA

# Dozena bat egun martiaren 8aren inguruan

Martiaren 8a, Emakumeen Nazinoarteko Eguna ospatzeko dozena bat baino ekitaldi gehiago antolatu dabez Arratiako andra talde eta Udaletako sailak: Areatzako Emakume Foroak, Dimako Andraize andra taldeak, Zeanuriko Mazala andra taldeak, Arteako Udal Emakume Arloak, Igorreko Udaleko Bardintasun Sailak, Lemoako Udal Emakume Arloak eta Bediako Udal Bardintasun Sailak, hain zuzen be.



Martiaren 8an konzentrazioa egongo da Igorren.

**Erredakzioa**

"Urtean-urtean gehiago dira, Martiaren 8ko programea antolatuten parte hartzean dabizen andra taldeak eta Udaletako bardintasun arloak. Izan be, Arratian azken urteotan andra eta feminismoaren inguruko saretxua antolatzea lortu da, eta nahiz eta lan asko daukagun aurretik ora-

indino, Areatzako Emakume Forotik oso positibo ikusten dogu alkarlan hau" dino Sara Gutierrez Areatzako zinegotzia eta Emakume Forokoak.

Aurtengo Arratiako programazino bateratuaren ildo nagusia sexualitatea da, eta horren harira antolatu dabez berbaldi, film, antzerki, ikastaro afari eta abar.

**Martiak 3, eguena. Areatza**

18:00etan Udal Aretoan, Laura Sirotich-en "Emakumeen sexualitatea" berbaldia.

**Martiak 4, barikua. Zeanuri**

21:30ean, andren afaria frontoiko jatetxean.

**Martiak 5, zapatua. Dima**

19:30ean, Behibiz taldeak *No*

*es tan facil* antzerkia.

21:30ean, andren afaria Artaungo Aspuru jatetxean. Ostean, jantzaldia Jokaldi taldeagaz.

**Martiak 7, astelehena. Lemoa**

18:30ean, Jone Gardokik "Emakume ekintzaileak" hitzaldia emongo dau jubilatuen etxeko 1. solairuan.

**Martiak 8, martitzena. Igorre**

19:00etan, Kultur Etxearen aurrean konzentrazioa. Ostean, txokolatea.

**Martiak 11, barikua. Areatza**

19:00etan, *80 egunean* filma Udal Aretoan.

**Martiak 11, barikua. Bedia**

19:00etan, eskoletan Bardintasun Plana dala eta gizonai egindako inkestaren emoitzak.

**Martiak 12, zapatua. Artea**

19:00etan, Oihulari Clown taldeak *Zinema* antzerkia.

**Martiak 13, domekea. Areatza**

Arratiako Emakumeen I. Mendi Marxa. 09:00etan Areatzako eleiz aurrean. Gorbeia igoera (ibilbide laburra eta luzea). 14:00etan, plazan barauskarria parte hartzaileentzat.

**Martiak 18, barikua. Igorre**

19:00etan, Kultur Etxean tailerra "Gure gorputza, gure sexualitatea birpentsetan".

**Martiak 21, astelehena Igorre**

19:00etan, Lasarte Aretoan hitzaldia "Abortoa mobimentu feministaren ikuspuntutik".

**Martiak 26, zapatua. Igorre**

20:00etan, Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garaik *Baginaren bakarriketak* antzeztuko dabe Lasarte Aretoan.

ARRATIA

## 5.000 biztanle baino gitxiago dituen udalantzako diru laguntzak Bizkaiko Foru Aldundiak

**Erredakzioa**

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak epea zabaldu dau 5.000 biztanle baino gitxiago dituen Bizkaiko udalek kultur jarduerak egiteko diru-laguntzatarako aukerea izan daien. Arratiako herri guztiak dira 5.000 biztanle baino gitxiagoak.

Guztira, laguntza ekonomikoa 345.000 eurokoa da. Musikan, folklorean, arte eszenikoetan,

ikus-arteetan eta ikus-entzuzkoetan eta literatur sustapenean erabilteko da laguntza hau. BFAkoen berbetan "kalidadezko kultur jarduerak" egiteko, hain zuzen be.

Laguntzak emoteko programa honen bidez, Bizkaiko foru erakundeko Kultura Sailak "Udallerri txiki" horreerri kultur bizitza eta eskeintza egokia sortzeako behar daben laguntzea" emon gura deutse.

**Elexalde**  
Meri eta Josetxu  
Pinturak (kolore guztiak)  
Egur babesleak  
Suteak eta behe-suak  
Garbiketa produktuak  
Lehendakari Agirre, 31 bis. • 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 673 62 34 • Fax 94 673 72 38

**indar**  
instalazio elektrikoak  
Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4  
48142 ARTEA - BIZKAIA  
T. 94 655 47 19  
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

*Los Chopos*  
neurritza egindako armairuak  
Arda, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 639 40 94  
**Esposizioa eta fabrika Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

\* KIRRU \* ILEAPANDEGIA  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 bajo • 48140 IGORRE (Bizkaia)  
• 94 631 92 00

**ERREKONA**  
619342133  
errekona@hotmail.es www.errekona.com  
**Burdin lan orokorrak. Balaustadak, hesiak, burdin estrukturak, balkoiak...**

**Erreka Garraioak**  
Mugikorra 629 465 335  
Branche austro, 12 LEMOAN  
Tlfnoa: 94 631 50 82 Faxa: 94 631 51 81

Emilio Goitia banatzaile ofiziala  
**San Miguel**  
Ardoak Edariak  
94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

**ZEANURI**

**Berrogei behi eta hamabost zekor hil dira Zeanurin piztutako sute baten**

**Erredakzioa**

Zezeilaren 22an, goizeko zazpiak baino lehentxeagoa, sutea piztu zan Soloeta auzuneko nekazal esplotazino baten. Sute haretan, 40 behi eta 15 zekor hil ziran

Herrizaingo Sailak jakitera emon ebanez.

Suhiltzaile kamioi ugari bertaratu arren, ezin izan eben ezer egin animaliak erreskatetako. Ganera, traktore bat eta beste makina batzuk be erre ziran.



Luis Iturbe, erretako eraikinaren ugazaba. Argazkia: Pablo Viñas.

**ARRATIA**

**Euskerazko hedabideen agerraldia Donostian**

**Erredakzioa**

Editorial bateratuari segida emoteko, zezeilaren 15ean, bildu ziran Donostian Euskal Herri osoko euskerazko hedabideen ordezkariak sektorearen arazozen zein arazo horreei aurre egiteko proposamenen barri emoteko. Topagunearen zuzendariak, Jasone Mendizabalek azaldu ebazan sektorearen ize-nean arazo zein proposamenok.

**Zenbaki esanguratsuak**

Topagunearen presidentek bere berbaldian zenbaki esanguratsu batzuk emon zituan, sektorearen garrantzia adierazoteko. Holan Mendizabalek esan eban, 100dik gora dirala euskerazko hedabideak, prensa, irratia, telebista eta Internet kontuan hartuta; 620tik gora hedabide horreetako langileak; guztien artean, urtean 27 miloe eurotik gorako aurrekontua mobiduten dauala sektoreak; 7 miloe euro inguru sortu eta ordaintzen dirala zuzenean gizarte segurantz eta zerga bidez (BEZ eta PFEZ). 7 miloe eta erdi euro jasoten dauala sektoreak diru-laguntzen bidez eta 2007ko abenduan CIEsek propio egindako azterketa batek inoala euskerazko hedabideak 450.000 lagunengana heltzean dirala, hau da, euskaldunen %57dala euskerazko hedabideen jarraitzaile eta konsumitzaile.

**ARRATIA**

**Aldundiak 8.500 hektareako baso-masea tratauko dau pinu-beldarraren kontra**

Izurritea parametro normaletan dagoala pentsetan dabe Aldundian.

**Erredakzioa**

*Thaumetopoea Pityocampak* eragiten dau izurrite hori, eta, batez be, pinuak kaltetzen ditu. Egindako azterketen eta basozainak jasotako datuen arabera, 8.500 hektareako masa baten egin behar dala izurritearen kontrako aireko tratamendua emon dabe jakitera Aldundiatik. Azalera hori Bizkaiko Lurralde Historikoaren % 6 da.

Kontu berezia izango dabela parke eta erreserba naturaletako lurretan egiten diran jardueretan, bai

eta nekazaritza ekologikoko inguruetan, azaldu dabe Aldundiatik. Eta nekazaritza ekologikoko inguruetan, harezag bateragarria dan produktu bat erabiliko dabela.

"Nekazaritza Sailaren urteroko arboladien zaintzaren barruan, prospekzino batzuk egiten ditue basozainak eta Baso Zerbitzuko teknikariak. Holan, jakin daiteke zeintzuk diran Bizkaiko lurralde osoan kaltetu diran pinudi publikoak zein pribaduak. Landa-fitxa batzuk egiten dira, kaltearen gradua eta zonak jasoten dituenak; fitxa horreek oinarri dira izurritea

kontroletako" dinoe.

Iturri honeen arabera, aurtengo gradua normala da eta garagarriean hasiko dira mendietan tranpak ipinten, feromonakaz, tratamendurako data onenak zehazteko. Aireko

tratamendua egiteko aldirik onena abuztuaren amaieratik urri lehenengoaren lehen hamabostaldira izaten da, beldarren lehen estadioa da eta.

Horrez ganera, Aldundiak izurriteari aurre egiteko beste metodo batzuk be erabilten ditu: beldarra jaten daben hegaztientzako habia-kaxak ipintea, lainoztagailuz egindako zuzeneko tratamendu puntualak eta poltsai produktu fitosanitarioa jauritzea, beste batzuen artean.



Pinuaren izurritearen kontrako tratamendua egingo dau Aldundiak.

**Zertu Kultur Elkarteak hiztegia doban emongo deusue Begitu-lagunai enpresa honeeri esker:**

**ilunbe** INGENIARITZA ETA ZERBITZUAK

**ekin** ENERGIEN ENPLAZAMENDUAK

**Gorosti** LORAZUNTZA

**INTERKLABE** HERRIEN ENPLAZAMENDUAK

**bbk**

**IBATZ** ENPLAZAMENDUAK

**indar** instalazio elektrikoak / instalaciones eléctricas

**ARRATIA PINTURAK** JABI MORATO

**ARRATIA** INGURUKO HIZTEGIA

**begitu**

**begitu** anaita ubide zuberio

**Ametzola Landetxea**

Ametzola 1-1  
48499 Zeberio  
629 429 870  
www.ametzola.com



**expert** **ARRATIA**

E-posta: expertarratia@cordevi.com  
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55  
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

**HERRIKO BENTA**

HOSTAL

HERRIKO PLAZA  
48142 ARTEA (Bizkaia)  
Tel. 94 631 72 56

**RUGBY TABERNA**

•Egin zaitez bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburretan pintxo bereziak

**ARRATIKO ZEKORRAK**

arratiko.zekorrak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

**bbk**

## ARRATIA

### Cesar Arrondo Gernikako Akordioaren aurkezpenean

#### Erredakzioa

Ehun lagun inguru batu ziran zezeilaren 20an, Igorren egindako Arratia mailako Gernikako Akordioaren aurkezpenean. Ezker abertzalearen arabera, "bertaratutakoen artean, sensibilitate abertzale desbardinatuko jentea egon zan, EAJ-PNVtik ezker abertzaleraino, EA eta Aralar-etik pasauta". Cesar Arrondok, Bilbon, Sorturen legalizazioaren aldeko manifestazioaren ostean berbea hartu ebanak, Igorren be egin eban berba batzuk, legalizazioaren beharra eta espetxe politika bignutzea lehentasunak dirala esanez.

Ekitaldian, akordioa igazko urri lehenengoaren 25etik sinatu zanetik egindakoaren barri emon zan eta akordioaren edukiak irakurri ziran beste gauza batzuen artean.

## IGORRE

### Igorreko gizonetzko bat hilda auto istripu baten

#### Erredakzioa

Igorreko Aitor Aurrekoetxea 30 urteko gizonetzkoa hil zan zezeilaren 28an Igorreko saihesbidean, auto batek eta kamioi batek talka eginda. Beste bat zauritu egin zan eta Galdakaoko Ospitalera eroan eben.

14 hilabete diranean saihesbidea zabaldu zanetik bertan hiltan dan bigarren igorreztarra da.

Eusko Jauriaritzako Herrizango Sailak jakitera emon ebanaren arabera, istripua goizeko 06:30ean gertatu zan, N-240 kamioian, Igorre parean. Kamioi batek eta auto batek talka egin eta gizon bat hil zan eta beste bat zauritu ziran. Horren ondorioz kamioia zarratuta egon zan noranzko bietan hainbat orduz. Zirkulazioa bide zaharrera desbideratu eban Ertzantzak.

## IGORRE

Zezeilaren 19an amaitu zan merkataritzan euskerearen erabilera sustatzeko Igorreko 60 establezimentuk aurrera eroan eben Probatu Euskeraz kanpaina.

### Probatu Euskeraz kanpainearen zaporea probau dabe 60 establezimentutan

#### Erredakzioa

Merkatari-bezero arteko hizkuntza ohituretan eragin gura izan da eta ezagutzatik erabilerara pasatuko dagoan saltu horretan igorreztarrek euskeraz probatzera animau dabez Euskera Zerbitzukoak. Zozketa bat antolatu da eta momentuan banandu diran opariez gan, beste sari bi zozketatu dira. Sari nagusia, 200 €ko bonoa, Itxaso Atutxak irabazi dau. Opari desbardinez osatutako lotea izan da bigarren saria eta irabazlea Mila Goikolea izan da.

Kanpainari osotasuna emoteko, fruta-denda, arraindegi eta harategietan be kartelak ipini dabez, hizkuntza paisajea euskaldundu eta salerosketea euskeraz izan daiten erreztuteko. Sarritan konsumitzaileak ez dau jakiten zelan esan produktu baten izena euskeraz, eta kartel honeen bidez, produktu bakotxa euskarazko izen bategaz lotu dabe argazkia esker. Kanpainan parte hartu daben establezimentuetan ipini dira momentuz, eta gaintzokoetan kartela eskeini eta ipinteko konbitea egingo jake.

Kanpaina amaituta, balorazioa ona bada be, antolatzaileen esanetan, hobetu beharrekoak egon badagoz "txartel larregi izan dira eta opari gitxi proportzinoan, horrek desmotibazioa ekarri dau; eta horrezaz gan, komertzio batzuetan ezin izan dabez txartel guztiak banandu".

Hobetu beharrekoak alde batera itxita, badira ondo balorau diranak "parte hartzea sano ona izan da eta euskerearen aldeko kanpaina baten horrenbeste komertziok parte hartu izanak erakusten dau euskerearen erabilera aurrera egiteko gogoia eta konpromisoa dagoala. Praktikan praktika behar da. Hizkuntza-ohiturak ez dira egun batetik bestera

aldatzen, edozein ohituragaz gertatzen dan moduan, praktikau egin behar da. Erderaz egitea ohitura besterik ez da. Nahiz eta hasieran ahalegina eskatuko deuskun, denpora gitxian ohitura bilakatu jaku ahal dan guztietan euskeraz egitea" dino Amaia Arauzo Udaleko Euskera Teknikariak.

"Hiru aste iraun dauan kanpaina honen bidez, hizkuntza ohiturak aldatzeko baldintza egokiak ipini gura izan doguz, errezagoa eta erosoagoa izan daiten ohitura aldatzea" dino teknikariak.



Komertzioetan ipini diran kartelak.

## LEMOA

### Zabortegi bat handitzeko baimena

#### Erredakzioa

EFE Agentziak jakitera emon

dauanaren arabera, Eusko Jauriaritzak ingurumen baimen bateratua emon deutso Ekonor enpreari, Lemoan daukan hondakin ez arriskutsuen zabortegia handitzeko. Zabortegiak 90.000 metro koadro ditu, eta 1.500.000 metroko kubikoko edukiera.

Ekonorrek Bizkaian, Gipuzkoan eta Lugon ditu hainbat azpiegitura.

igorren erosi  
danok irabazten  
dogulako  
010  
Arratiako Merkatarien Elkarte / [www.arratia-merkataria.com](http://www.arratia-merkataria.com)

## ARATUSTE SASOIKO OHITURAK

# Kanporamatxo, Etxeramartxo, Martitzen-karnabal eta... Garizumea

Sartu gara Aratuste edo Inauterien aldian, alaitasuna eta txantxa nagusitzen diran sasoiari. Herri bakotzak bere erara ospatzen dauzan jaiak dira, beharbada jairik unibersalenak. Arratia aldean oraindino bizi-bizi dagozan Karnabal garaiko ohitura zahar bi Kanporamartxo eta Etxeramartxo dira.

Jon Urutxurtu

Kanporamartxo, Hautsegun aurreko bigarren domekan ospatzen da, aurten zezeilaren 27an. Egun horretako arrastian, lagun taldeak mendira edo ermitaren

Kanporamartxo Hautsegun aurreko bigarren domekan ospatzen da



Koadrila bat txarria hiltzen dabizanaren itxurak egiten.

baten inguruetara joaten dira, txarriak —txorizoa edota urdaia— ugari eroanez bertan merienda eder bat egiteko. Basora heltzeaz batera, sua egiten da, eroandako txarriak puntea atera jakon palu edo burrunzi baten sartu eta txingarretan erretzen dira. Prestaketa era hori txixi-burrunzi izenez ezagutzen da. Hurrengo domekan, Domeka-Karnabal egunean, aurten martiaren 6an, janari bardina prestetan da, baina mendira edo kanpora urten beharrean, etxean edo etxe inguruan geratuta; hortik dator Etxeramartxo izena.

Lehenago gehiago, baina gaur egun be egun bi horreez gan Karnabal aldia zehar ohikoa da txarri-hiltzetik ateratako produktak jatea, batez be Martitzen-Karnabal edo Ateste egunean, txarri-belarri, txarri-hanka eta tostadak jaten dira. Domeka-Karnabal zein Ateste eguna, kokomarro jantzi edo mozorrotzeko zelebrequeriak egiteko egunak be izaten dira.

Ospakizun horreek guztiak Garizumearen etorrerea iragarten dabe. Kanporamartxo, Etxeramartxo zein Karnabaletako kokomarro jantzea eta zelebrequeriak, Garizuma garaiko hurrengo berrogei egunetan jagon behar dan barau eta bijiliari kontrajarten jakez.

**Karnabalak, mundua atzekoz aurre**

Garizumearen aurreko jai he-

rrikoia Karnabala da. Euskaraz deitura desbardinak hartzean dauz: Inauteriak, Aratustea, eta Arratia aldean Atestea edo Atistea.

Karnabaletan mundua atzekoz aurre jarten da, eta jentea kokomarro jantzi eta logika guztia apurtzen da; egun batez, gizartea hankaz gora ipinten da: gizonetako andre bihurtzen da, jauntxua morroi, epailea epaitu eta militarra bakezale.

Antxinako euskal karnabaletan lagun taldeak mozorrotu egiten ziran, eta txistu eta tanborilaz lagunduta, etxetik etxe, baserrikerik baserri ibiltzen ziran eskean, gero batutako jakiakaz merinda-afariak egiteko; kontuan izan behar da jada zezeilean negu horretan hildako txarriaren okela gitxi geratzen zala, eta Atestea eskean joateko eta tripakadak egiteko aukera bakarra zan Garizumearen aurretik.

**Karnabalen jatorria**

Jai honeek, batez be nekazaritza eta artzantza giroko gizarte bantentzat garrantzi handia eukien urteko une berezi bateri jagokoz, neguari hain zuzen be, natura lozorroan dagoan aldiari. Sasoi honetan gizakiak bizia barrero etortzea gura eta behar dau, eta udabarria noiz helduko zain dago.

Ez dira gitxi karnabalen jatorriaren inguruan antropologoak, historigileak eta folkloristak emon dabezan interpretazioak: batzuen eretxiz, aztikeriak erabiliz udabarria ekarri, eta landareen heriotzearen eta ernalbarritze-espirtuaren berbikundearen bidez bizi indarra barrero gura izan dau antxinako gizakiak; beste batzuentzat, ospakizun ho-

## Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoia

Arratia BHI

Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoite

Ikastola Arratia HI

Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI

Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI

Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoite

Areatzako Herri Eskola

Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI

Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI

Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI

Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Egarren Hezkuntza, Baxilergoak, Hezkuntza zikloak

**arratiako  
instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatze sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igoiteko Industriak, Pab. 07  
Tel./Fax 94 673 62 76  
819 734 616  
48142 Igoite Baku

**GALANTA**

Bametik jantzeko  
Zugandik sano hurbil



Lehendakari Agirre 23, Igoite  
Telefonoa: 94 631 90 08





Aratusteak indarra hartzean dabiz geurean.

rreekaz kalte guztiak uxatu gura izan dira, herria eurengandik babestuteko; eta beste batzuek dinoenez, erromatarren agintaldiko jaietan daukie jatorria, Janoren Kalendatan, *Saturnalia*, *Lupercalia*, *Matonalia* izeneko jaietan.

Julio Caro Barojaren arabera, gaur egungo Karnabalak Erdi-Aroan egituratutakoak dira; lehenagoko errito eta ohiturak mantenduko dabez, baina Eleiza Katolikoak gorpuztu eta egituratu egingo dauz. Era honetan gure Karnabalak Garizumeari kontrajarriko jakoz.

Kontuak kontu, argi dagoana zera da: Karnabalak antxinatik jatorriz, eta gizaldiz gizaldi mantentzen dirala aldi barrietara egokituz. Eleizea jai horreen aurka ipini zan batzuetan debekatuz, eta beste batzuetan araupetuz eta bideratuz. Holan heldu da Karnabala guganaino, Garizumeari kontrajarten jakon askatasun eta gehiegikeria aldia moduan.

#### Garizumea eta Aste Santua

Atesteetan mundua atzekoz aurre jarten bada, Garizuman horregaz guztiagaz amaitzen da. Garizumeak penitentzia eta otoitz egiten Jesusek basamortuan igaro ebazan berrogei egunak dakarguz gogora; Ebanjelioak dinoskuenez, aldi horrek garrantzi

handia euki eban Jesusentzat, bere bizitza publikoa hasi aurretik prestakuntza baliagarria izan zalako. Hauts-egunetik Aste Santuaren hasiera arte, hau da Erramu-egunera arte luzatzen diran berrogei egunak barau eta otoitz egitera zuzenduta dagoz.

Baina zergaitik aldatzen da egutegian Aste Santua? Zergaitik izaten da batzuetan martian eta beste batzuetan apirlean? Arrazoa 325. urtean egin zan Nizeako Kontzilioan aurkitu behar da; batzar horretan Eleizako agintariak zera ebatzi eben: Pazkoa udabarriko lehenengo ilargi betearen ondorengo domekan ospatzea; horregaitik, Aste Santuan beti ilargi bete izaten da, eta Pazko-domekea inoiz be ez da izango martiaren 22aren aurretik ezta apirilaren 25aren ostean be.



Zeanurin txitxi-burruntzia.

Aste Santua beti ilargi bete izaten da

Etixeramartxo Domeka-karnabal egunean izaten da

## Arratiako eleizaren Garizumako egitaraua

Martiaren 9a, eguaztena: Hautsen eguna.

Martiaren 11a, barikua, 19:30ean: Asis sareagaz Otoitzaldia eta sarearen aurkezpena Arratian. Igorren.

Martiaren 18a, barikua, 19:30ean: Jon Landa, Ibarretxeren gobernuko giza eskubideen zuzendaria: "Bakea eta giza

eskubideak" Hitzaldi gogoeta. Igorren.

Aprilaren 1ean, barikua, 19:30ean: Joxe Arregi "Jesusen barri ona XXI. menderako" Hitzaldi gogoeta. Igorren.

Aprilaren 8a, barikua, 19:30ean: Asis sarearen otoitzaldia. Igorren.

Aprilak 9a, zapatua: Ziortzara otoitz ibilaldia: "Emon bidea bakeari!"

**BATZ**  
BATZ, S. KOOP.  
Tomea suzoa, 32  
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharreen beharrez,  
euskeraz eginez

Enbataren  
Batzaren gaitia

MONDRAGON  
INDUSTRIAL CORPORATION

Zugaitik BEGITUten dogu  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)

Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

ellauri  
HOTELA

Naturaz sortuta

Landa Turismoa  
Enpresa Zerbitzuak

Aitzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | [ellauri.com](http://ellauri.com)

**PELOTEA****Arratia-Nerbioi pelota finalean Lemoak txapela bi eta Zeanurik bat****Erredakzioa**

Arratia-Nerbioi A txapelketaren zezeilaren 19an jokaturako finalean, hiru txapel izan ziran Arratiarako, Lemoako eskupelota eskolarentzat bi eta Zeanurikoarentzat bat. Lemoakoan txapeldunak Iriberrera eta Iker Yurrebaso izan ziran Gazteak mailan, eta Aitor Artazar eta Mikel Aurrekoetxea Mutikotxuak mailan. Mutikoak kategorian azpitxapeldunak be, Lemoako eskolakoak izan ziran, Koldo Errekagorri eta Oier Etxebarria, hain zuzen be. Zeanurikoak, barriz, Umeak kategorian lortu eben txapela. Txapeldunak Lan-

der Erkiaga eta Beñat Etxeita izan ziran.

Giro ederra egon zan urtero ehundaka ume eta guraso batzean dauan zita honetan. Aurten Dimako frontoi urdin barrizuan.

**Emoitzak**

Gaztetxuak: Arrankudiaga 22 - Orozko B 21.

Gazteak: Lemoa 22 - Orozko 14. Umetxuak: Zaratamo 16 - Zornotza 18.

Umeak: Zeanuri 18 - Zornotza 14. Mutikotxuak: Lemoa 18 - Zornotza 13.

Mutikoak: Arrankudiaga 18 - Lemoa 9.



Pelotari gazteak finalean.

**AIZKOREA****Atutxa II.a Binakako Eusko Label txapeldun****Erredakzioa**

Iñaki Azurmendi eta Aitzol Atutxak lortu eben binakako txapela, XI. Eusko Label txapelketaren urrezko mailan. Finala Azpeitiako Izarraitz frontoian izan zan zezeilaren 27an.

Azurmendi eta Atutxak 29 minutu eta 19 segundu behar izan zituen lana amaitzeko. Aurkariak, Anjel Arrospide eta Ugaitz Mugarza II.ak, barriz, 31 minutu eta 29 segundu.

Bikote txapelduna ez zan fi-



Aizol Atutxa Iñaki Azurmendi alboan daukala.

nalerako lehenengoan sailkatu, euren taldeko bigarren geratu ziran eta, Atutxa eta Azurmendi.

Azkenean, ez bakarrik sailkatzeko aukerea, txapela be lortu eben dimoztarrak eta bere bikotekideak.

**FUTBOLA****Emoitzak ez oso onak gure futbol taldeentzat****Maialen Egileor**

Lemoa bederatzigarren da 41 puntugaz. Azkenurreko partidua galdu egin eban 3-1 Gimnasticaren kontra eta azkenengoa, barriz, irabazi egin eutsan 1-0 Barakaldori. Arratiako mutilak osteraz ezin izan dabe jokaturako partiduetan 3 puntuak lortu. Lehenengo bana

bardindu eben Erandiogaz eta gero galdu egin eben 3-0 Loiuagaz. Hamairugarren dira orain 26 puntugaz. Neskek be puntu bakarra lortu dabe azken bi jardunaldietan. 1-0 galdu eben Erandioko nesken kontra eta bana bardindu eben Santurtziko Peña Athleticen aurka. Halanda be, zazpigarren postuan jarraituten dabe 29 puntugaz.



Lemoako taldea Torrelavegaren kontrako partiduan.

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)  
[alkizabal@alkizabal.net](mailto:alkizabal@alkizabal.net)

Zabalik 07:00 - 19:00

# ALKIZABAL

**Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua**

**BOLUNBURU POLIGONOA**  
Amorebieta-Lemoa bidea  
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26  
48330 Lemoa (Bizkaia)

**KÄRCHER**  
Banatzaile ofiziala

- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.

## ERRUGBIA

### Zekorrak itzel

**Ainhoa Duñabeitia**

Astegoiak itzela Arratiko Zekorrak taldeentzako. Zezeilaren 27an, domekea, nagusiak Santanderren izan eben norgehiagokoa Ubs Cantabriaren kontra. 10-19 izan zan azken emoitzea. Ligatxu honetako lehenengo

postua nork lortu jokatzen dabiz Arratiko Zekorrak, eta holan jarraitu ezker lortu egingo dabe. Zekortxuak oster, zapatuan, zezeilak 26an jokatu eben San Txismen. Partidu polita gazteena eta giro itzela Gezalako zelaian. Bera-Bera taldearen aurka jokatu eben eta 19-12 nagusitu ziran etxeok.



Arratiko Zekorrak Rugby Taldekoak Santanderren jokatutako azken partiduan.

## MENDIA

### Alex Txikon: "Ezin da aguantau hemengo hotza"

**Erredakzinoa**

6.000-7.000 metro ingurura dagoz Alex Txikon eta bere espedi-

zinokideak Göschi eta Rousseau, Gasherbrum-en neguan bide barri bat zabaltzeko asmoz. Han, 45 eta 60 km/h haizeak dabiz eta tenpe-

raturea -25 eta -34 gradu artekoa da. "Ezin da aguantau hotz hau" dino Txikon.

Erronka uste baino gogorragoa suertatu dala dino lemoztarrak "Erraza izango zala pentsetan gendua, uste baino gaxagoa da". Izan be, Txikon gaisorik egon zan eta kalentureagaz pasau eban espedizinoko 33. gaua.

## SASKIBALOIA

### "Antxinakoen" arteko saskibaloia partidua



"Ez hain antxinakoak" dira argazkian agertzen diran jokalariek.

**Erredakzinoa**

Aspalditxuan desagertu zan Igorren Arratiako jentea batzean eban saskibaloia taldea, baina talde horretan sasoi desbardinetan ibili ziran gizonen jokari ohiak

partidua antolatu dabe. Berau, martiaren 12an, Igorreko kiroldegian, arrastiko 18:00etan jokatuko da. "Antxinakoak" "ez hain antxinako" jokalarien kontra. Ez hazurrik ez bururik apurtuko dabe-lakoan urtengo dira jokalariek.



Gasherbrum mendia.

Begitu-lagun egiteko aukera parebakoa

bi lagunentzako afaria  
**Axpe Goikoa jatetxean**

edo **gaua+gosaria**

**Atxaspi Hotelean**  
**zein Ellauri Hotelean**

eroango dozu sari lez

Urtailaren 5etik martiaren 31ra

begitu-lagun barriak Arratia inguruko Hiztegia doban emongo jakie eta zozketa berezia egingo da eurek az BEGITUren 9. urteurrenagaz batera

7 begitu-lagun  
ekarten badozuz:

## ARATUSTEAK

## Aratuste jaiak gurean

Iruñe Garzia

Arratiako eskola umeak betiko lez eurak egindako moztorroakaz jantziko dira baina horrezaz gan Arratiako Zekorrek Rugby taldeak Udaren laguntzagaz Aratuste jaiak antolatu dau martiaren 5erako. Ekintzak Igorreko eskoletako atepan izango dira eta hau da egun horretarako dagoan programa.

## Egitaraua

11:00etatik 13:00etara Umeen-tzako jolasak Zastaparrak Asti Taldeagaz.

11:05ean Ugel txapelketea.

12:30ean Trikipoteoa herri osoan zehar.

14:30ean Bazkaria (Tiketak salgai dagoz Rugby Taberna, Gau Lora eta Herrikoan).

16:10ean Jantzaldia Atrilikbez taldeagaz

17:30ean Upo, Topotin eta Bartolina Pailazoak *Txakala-txakala*

txu-txu lanagaz.

18:30ean Umeen moztorro lehiaketea. Txikiak: 0-10 urte / Ertainak: 11-17 urte.

Ekintza honeen ostean, AEK-k kontzertuak antolatu dauz gaue-rako Korrika Kulturalaren ekintzen barruan. 18:30etatik hasita kontzertuak egongo dira Kukuma, Herriko eta AZ Rugby Tabernan: Materia Gris, Puerperos, Bidean Galduta eta Larregi taldeak eta albokariak eta bertsolariak egongo dira.

Eta hamabost tabernak moztorro lehiaketea antolatu dabe.

## Laminetxe Gaztetxeko ekintzak

Aratuste jaiak prestatu dabe Areatzako Frakazuri Gazte Asanbaladakoak hilaren 4rako. 22:30ean Antzerkia *Las punkys también lloran* eta ostean musikea eukiko dabe. Zapatuan, hilak 5 oster, 22:00etan Disc Breakers DJ-ak egongo dira.

## LEMOAKO GAZTETXEA

## Gaztetxe eta Gazte Asanbladen eguna Lemoan



## Erredakzinoa

Durungalde eta Lemoako Gaztetxe eta Gazte Asanbladen koordinadorako jaiak Lemoan izango

da martiaren 12an. Paella txapelketea, olinpiadak, punk poteoa, Dj-ak, edo kontzertuak ez dira faltako. Kartelean dozue programa.

## KORRIKA

## Kultur ekintzak

## Erredakzinoa

Apirilaren 16an pasauko da Korrika guretik eta orduan pasauko deusie arratiarrak lekukoa bata besteari galapan. Bitartean, kilometroak erosten edo Korrika Kulturalaren parte hartu daikie arratiarrak.

Kilometroen salmenta ondo doala, "polito, ez dira kilometro guztiak saldu oraindino, baina mobimintua dago" azaldu deutso BEGURI Gorka Barrenetxea AEK-koak

## Musikea, bertsoak eta jana

Korrika Kulturalako hurrengo ekitaldia, Igorreko Kukumak, Herrikoak eta Rugby Tabernak antolatutako kontzertuak dira. Martiaren 5ean izango dira kontzertuak.

Hilaren 19an, Igorren egiten dan Sanjoseetako bertso saio arrakastatsua Korrika Kulturalan sartuko da. Ekintza honeen ostean etorriko dira gehiago, emongo dogu horeen barri.

## LEHIAKETEAK

## Txoborro magoak banandu zituan ipuin lehiaketako sariak

Zezeilaren 17an izan zan Lemoako haur eta gazteen X.

Ipuin Lehiaketako sari banaketa ekitaldia.

## Erredakzinoa

Lemoan, Txoborro magoak sariak banatzeaz ganera, "magia eta umorez betetako saio bat eskeiniko eban" azaldu deutso BEGURI Josune Lejarazu Lemoako liburuzainak.

Guztira 110 ipuin aurkeztu ziran edizino honetan eta ipuin guztien artean talde bakotzeko hiru lan saritu ziran.

"Saria material didaktikoa izan da (kuademoak, ipuinak...). Horrez ganera, parte-hartzaile guztien artean diploma bana eta pirata bat eukan kutxatxu bat banandu zan opari gisa" dino Josune Lejarazuk. Betebehar hori egiten Txoborro magoa egon zan liburutegi eta ludotekako arduradunakaz batera.

Saritutako ipuinak liburu baten eta Udaleko webgunean argitaratuko dira.

## Lan sarituak

Hona hemen saritutako lanak eta lanon egileak:

## I. taldea (7 urte artekoak):

1. saria: Claudia Gallastegi / "Tomax txorimaloa eta bere laguna".

2. saria: Igor Arrese / "Futboleko

lagunak".

3. saria: Elene Gerrikabeitia / "Eskola".

## II. taldea (8-10 urte bitartekoak):

1. saria: Zorione Llamosas / "Pulutxezko hartza".

2. saria: Udane Artola / "Xola eta Mendi".

3. saria: Matxalen Malaxetebarría / "Espiritu txarrak".

## III. taldea (11-13 urte bitartekoak):

1. saria: Irati San Martin / "Konforme zagoz?".

2. saria: June Romero / "Gabon gaueko amets bat".

3. saria: Gregore Iuga / "Bizitza Marten".



Umeak sari banaketan.

## LEHIAKETEAK

## Beralagunen Toponimoen lehiaketaren saria Zeanurira joan da

## Erredakzinoa

Arratiako Beralagunen III. Toponimoen lehiaketaren zozketea egin zan zezeilaren 21ean. Urteroko lehiaketa bihurtu da Arratiako beralagunak antolatzen dabena eta aurton Axpe Goikoan lagun birentzako bazkaria Zeanuriko Irati Urienentzat izan da. Zorionak!

## Sagardotegira urteerea

Arratia mailan euskaldunen sarea indartu eta sendotzeko helburuagaz sortu zan Arratiako Beralagun. Lehiaketa amaituta, Arratiako beralagunen hurrengo ekintzea sagardotegira urteera izango da. Korrika Kulturalak antolatuko dau eta ekintza hau oso aproposa dala dinoe antolatzaileak Arratiako euskaldunak alkar ezagutzeko eta txiri-txiri euskaldunen sarea indartzeko. Izan be, urteera hau ez da beralagunentzat bakarrik; egunero-egunero euskeraz bizi gura daberen guztientzat baino. Astigarragara izango da urteera apirilaren 2an. Antolatzaileak parte hartzeako deia egin gura dabe.

## IKUSKIZUNA


## Zirku-antzerkia ikuskizuna eta malabar tailerra Maider Yabarrek

## Erredakzinoa

Martiaren 12an, iluntzeko 20:00etan Igorreko Kultur Etxean Maider Yabarrek eskeiniko dau *Takoiak airean* zirku-antzerki ikuskizuna. Hau, Buruz Behera Zirku eta Antzerki konpainiaren lehenengo lana da. Antzerkia, akrobaziakaz, pantomimeagaz eta poesiaz buztartzen ditu Yabarrek ikuskizun honetan.

## Malabar eta akrobaziaren tailerra

Ganera, malabar eta akrobaziaren tailerra emongo dau Yabarrek martiaren 27an, Lasarte Aretoan. Tailer hau 6 eta 14 urte bitarteko umeak dago zuzenduta, eta edadearen arabera talde bi egingo dira. Lehenengo taldeak, 6 eta 10 urteko bitartekoentzat, eskolak 11:30etik 12:30era izango dira. 11 eta 14 urteko tartekoak, barriz, 12:30etik 13:30era izango dabez eskolak.



Maider Yabar.

MISINOAK

# 1660 € Palenqueri (Ekuador) laguntzeko

Jon Urutxurtu

Palenqueko ospitaleari laguntzeko bideratuko da dirua. Jose Mari Kortazarren "Palenque bertatik" liburuaren salmentatik bildutako 1660 euro Palenquera (Ekuador) bialdu dira, bertako herritarrei laguntzeko. Gabonetan Zeanurin, Areatzan eta Igorren

"Palenque bertatik" liburuaren aurkezpenak egin ebazan Jose Mari Kortazar, Igorre, Arantzazu, Artea, Areatza eta Zeanuriko parroko barriak. Eta Liburuaren salmentatik bildutako dirua, Benjamin Respaldiza, Palenqueko parrokoari eskura emon jakon, joan dan zezeilaren 19an, hango ospitaleari laguntzeko.



Kortazar parrokoak bildutako dirua Benjamin Respaldizari emoten.

ZINE KLUBA

# Igorreko zineklubak Euskal Herrian egindako hiru dokumental emongo ditu

Erredakzioa

Igorreko zineklubaren aurreko zikloa Makhmalbaf familia eta Iraneko zinearen ingurukoa izan zan; orain, ostera, bertako produktzioan barri emoteko asmoa daukie antolatzaileak. Holan ba, martiko zikloan Josu Martinez zuzendariaren hiru lan emongo dabez.

Lehenengoa, martiaren 17an, *Itsasoaren alaba* (2009) lana izango da. Bertan, GALEk hildako "Txapela" errefuxiatuaren alabak haren memoria errekueretako egindako lana agertzen da.

Bigarren emonaldian, martiaren 24an, *Debekatuta dago oroitzea* (2010) dokumentala emongo dabe, Saturrarango andren kartzela frankistearen kronika historikoa. Lan honen zuzendaritzalanak Txaber Larreategigaz batera egin zituan Martinezek.

Hirugarren lana, martiaren 31n,



Sagarren denbora dokumentala ikusgai egongo da.

*Sagarren denbora. 25 urte deserritik itzultzen* (2010) izango da. Alfonso Etxegarai Afrikara deportata bizi dan bizkaitarraren eta bere bikotekide Kristiane Etxaluz zuberotarraren arteko hartu-emonaren barri emoten deuskun dokumentala dogu. Hemen be zuzendaritza konpartidu egin

eben Martinezek eta Larreategik. Azkeneko egunean, Josu Martinez egilea bera etorriko da, emonaldia ostean ikusleakaz bertatik bertara berba egiteko filmaren eta bere lanaren ganean. Emonaldi guztiak Igorreko Kultur Etxeko aretoan izango dira, 20:00etan.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Letra bat. Tripa. 2.- Hotza adierazoten dau. Garritik gorako gorputz zati bat. 3.- Birritan, hortz-kirinkaren onomatopeia. Gehiagi. 4.- Ezertara. 5.- Berrogeta hamar erromatar. Matematikan, logaritmoaren laburdura. Azken letra. 6.- Preso. 7.- Gasteizko kanpo herria. Galdetzailea. 8.- Partixean erabilten da. Litioa. 9.- Arima. Bokala.

### GOITIK BEHERA

1.- Andrazkoen izena. Berba alkarketan, adar. 2.- Octavio ..., mexikar idazlea. Tribu, talde. 3.- Sufrea. Lautada. 4.- Oinarrizko lau odol taldeetako bat. Bibliako pertsonajea, Abrahamen iloba. Sanskritoko silaba sagradua. 5.- Sorgin. Bokala. 6.- Kontau. Futboleko tantu. 7.- Laban eginda garraiatzen dan enbor. Kolore bat.

V	V	W	I	N	V	6
I	T	O	D	V	D	8
R	O	N	I	L	Z	7
U	C	I	K	A	V	9
Z	O	L	L	S		
N	V	L	Z	E		
R	L	A	Z	K		
O	S	E	B			
I	R	S	A	B	E	L
6	7	5	4	3	2	1

Topau munduko zazpi ugarteren izenak.

U	S	T	E	R	I	T	Z	A	K
R	E	J	I	K	D	E	A	S	O
T	G	O	A	B	O	N	K	E	R
E	L	G	O	M	S	E	R	M	A
K	A	L	E	B	A	R	R	A	I
O	S	A	B	E	T	I	K	L	D
Z	A	T	A	R	H	F	K	O	N
L	O	I	T	U	R	E	N	A	A
O	B	A	L	I	Z	K	O	R	L
T	E	L	U	I	B	A	G	E	S
H	A	S	T	E	Z	J	O	M	I
A	Z	X	O	T	A	I	W	A	N
N	A	R	T	A	M	U	S	E	A
O	D	A	L	E	B	O	S	K	O
A	Z	T	O	L	E	B	A	U	J

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOSERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**axular**  
kultur elkartea  
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**INCOESA**  
Tel. 94 631 32 75  
Faxa. 94 631 37 66  
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

**Umeen moda 0-20 urte**  
• Babeli • Ray • Aranda  
• AKC • Quisber • Arandiko  
• Gaudelo • Leiz • Hassanak  
**sein**  
LEHENDAKARI AGIRRE, 27 • 946 319 296  
seinmoda@hotmail.com

## AGENDEA

## MARTIAK 3

## AREATZA

18:00etan Udal Aretoan, Laura Siroich-en "Emakumeen sexualitatea" berbaldia.

## LEMOA

10:15ean, hasita txixi-burruntzia eskolan guraso eta ikasleentzat.

## MARTIAK 4

## AREATZA

22:30ean Antzerkia Areatzako Gaztehean. *Las punkys también lloran.*

## DIMA

19:00etan, "Diman etxean gura doguz" presoen aldeko konzentrazioa.

## LEMOA

11:30ean, JB Eguskiza Meabe ikastetxeak antolatuta mozorroren festa kiroldegian.

## ZEANURI

21:30ean, andren afaria frontoiko jatehean.

## ZEBERIO

Aratuste jaia ludotekan.

## MARTIAK 5

## AREATZA

22:00etan Disc Breakers DJ-ak Gaztehean.

## DIMA

19:30ean, Behibiz taldeak *No es tan facil* antzerkia. 21:30ean, andren afaria Artaungo Aspuru jatehean. Ostean, jantzaldia Jokaldi taldeagaz.

## IGORRE

Aratuste jaia Arratiko Zekorrek Rugby taldeak antolatuta. Ikusi programea 12. orrialdean.

22:00etan, zinea *Gizakiez eta jainkoez*.

## LEMOA

Umeentzako Aratuste festa kiroldegian. 17:00etan merienda. 17:30ean, diskofesta. 19:00etan, mozorro desfilea. 19:30ean, jaialdiaren amaiera.



## 80 egunean filma Areatzan

Martiaren 8a dala eta Emakumeen Nazinoarteko Eguna ospatzeko Arratian antolatu diran ekintzen artean hilaren 11n Areatzako Udal Aretoan 19:00etan *80 egunean* filma proiektuko dabe. Axun, 70 urteko andrea, alabearen senar ohia jagotera joango da ospitalera. Bere ezustekoa, ondoko gaixoa jagoten dauan andrea Maite dana konturatukeran, nerabazaroko lagun mina, 50 urte luzeetan ikusi ez dauana. Gaztetan eukien kimiketa oraindino bizirik dagoala sumatuko dabe berehala. Ardura barik gozatu eta dibertiduten dira alkarregaz, Axun, Maite lesbiana dala konturatzen dan arte. Bere sentimentuak dudatan ipiniko ditu Axunek: zeri segidu, buruari ala bihotzari?

Ganzabalen oroitze eguna. Lemoa-Artan. Urtemondo (789 m).

## UBIDE

Amexier Mendi Taldea, Jaizkibel-Hondarribia urteera eta gero sagardotegira.

## ZEANURI

14:00etan herri bazkaria Aratusteak ospatutako.

## MARTIAK 6

## BEDIA

Alto Campoora eskiatzeko umeentzako urteera. Ganguren antolatuta.

## IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Enredados*. 19:30ean, zinea *Gizakiez eta Jainkoez*. 17:30etik 20:00etara jantzaldia Kultur Etxean.

## MARTIAK 7

## BEDIA

17:00etatik 19:00etara, mozorroak eta arpegia margoztuteko tailerrak liburutegian.

## LEMOA

11:00etatik 14:00etara ludotekea zabalik.

18:30ean, Bizkaiko Nekazaritza-Turismo alkarteko presidentea dan Jone Gardokiren hitzaldia "Emakume ekintzaileak" jubilatuen etxeko 1. solairuan.

## MARTIAK 8

## BEDIA

Aratusteak. 11:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara, puzgarriak. 18:30ean, mozorro desfilea. 19:30ean, txokolata.

## IGORRE

Emakumeen Nazinoarteko Eguna. 19:00etan, Kultur Etxearen aurrean konzentrazioa. Ostean, txokolata.

## LEMOA

11:00etatik 14:00etara ludotekea zabalik.

## ZEANURI

Umeentzako Aratuste jaia ludotekeak antolatuta.

## MARTIAK 11

## AREATZA

22:00etan Pangea eta Niketz taldeak Aldamin tabernan.

## ARTEA

19:00etan, Oihulari Clown taldeak *Zinema* antzerkia.

## BEDIA

19:00etan, eskoletan Bardintasun Plana

dala-eta, gizonai egindako inkestaren aurkezpena.

## ZEBERIO

Zugatz Eguna. Gaiaren inguruko tailerrak ludotekan.

## MARTIAK 12

## AREATZA

23:00etan Jabier Mañon umorista Bixer tabernan.

## IGORRE

18:00etan "antxinako" eta "ez hain antxinako" Igorreko saskibalo taldeko jokalariei ohien partidua kiroldegian.

20:00etan, Buruz Behera zirkuak *Takoia airean*. Maider Yabar Kultur Etxean.

## LEMOA

Ganzabal. Neguko teknikak ikastaroa. San Lorenzo (2262 m).

14:00etatik aurrera, Gaztehe eta Gazte Asanbladen eguna. Karabie Gaztehean.

## ZEANURI

09:30ean plazan, Zugatz Eguna. Zugatzak Saldropo inguruan landatuko dira. Ostean, hamaiketako.

## MARTIAK 13

## AREATZA

Arratiako Emakumeen I. Mendi Martxea. 09:00etan Areatzako eleiz aurrean.

Gorbeira igoera (ibilbide laburra eta luzea). 14:00etan, plazan barauskarria parte hartzaileentzat.

## IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *La montaña mágica*. 19:30ean, zinea *Camino a la libertad*.

17:30etik 20:00etara jantzaldia Kultur Etxean.

## MARTIAK 14

## IGORRE

Hilaren 14tik 25era, Kultur Etxeko erakusketa gelan "Dispersioa" Etxerat-en erakusketa.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## SALTZEAN DOT

Egurrezko sehaska barri-barria saltzean dot, "Cune" markakoa, 150 eurotan, kolboia doban. Interesatuak 665 722 575 telefonora deitu.

## LAN ESKEINTZA

## BEHAR BILA

Goizetan behar egiteko prest nago. interesatuak deitu 676 370 409 (Maite).

## KLASEAK EMOTEN DIRA

Klase partikularrak emoten dodaz maila guztietan, matematika, fisika, marrazketa teknikoak, eta abar. Ikasketa teknikoak egitera doazen ikasleak prestetan dodaz. Deitu 605 746 487 telefonora.

## ESTETIZISTA BEHAR DA

Igorreko zentro estetiko baterako estetizista behar da. Interesdunak 635 704 739 telefonora deitu.

## DANETARIK

## SENEGAL BIZIKLETAN

Aste Santuan apirilaren 16tik 31ra bizikletaz Senegal ezagutu gura?

Egunero 45 km inguru. Prezioa: 950€ + hegazkina. Informazio gehiago xauenbidaia@gmail.com. Erdu!

## EROSI

## EROSTEN DOT

Umeak paseatzeko antxinako karroen bila gabiz. Atera hauts artean gordeta eta ahaztuta daukazuen karro hori, prezioa ipini eta deitu 646 597 501 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

1

**Zeberioko Txaro Sagardotegiak emondako afari bi (Sagardotegi menua).**

Kimetz Intxaurraga (Zeanuri)  
Aritz Arrizabalaga (Igorre)



2

**Zeberioko Ametzola Landetxeak emondako asteburu pasa.**  
[www.ametzola.net](http://www.ametzola.net)

Yolanda Martinez (Areatza)



Zerturen

argitalpenak  
jasoko dozuz,

zozketetan

sartuko zara.

Ehun zenbaki  
eta ehundaka

lagun.



# Ronan-en grua

## Zulaibarko ikasleak

Zulaibar Lanbide Heziketako bigarren mailako Haur Hezkuntzako talde bat gara. Gabonetarako aste bi falta zirala, gabonetan murgilduz gela apaintzen genbizan, pozik, oporren ganean berba egiten, Gabonetako afaria,

opariak...

Halako baten gelakide batek Lekeitio herrian gertatutako istorio hunkigarri bat kontau euskun. Ronan umea zan istorio honen protagonista. Ume honek daukan arazoa hurrengo da: distrofia muskularra dauka eta eguneroko beharizanetarako

garestia dan grua bat behar dau. Bere amaren egoera ekonomikoa ez da ona eta grua eskuratzea ezinezkoa egiten jako. Buruari hainbat buelta emon ostean bere lagun baten bitartez jabetu zan enpresa bateri plastikuzko tapoien truke diru laguntza bat lortzeako aukerea egoala. Ama berehala hasi zan behar-rean, Euskal Herriko enpresakaz kontaktuan jarri. Eta Mungiako enpresa batek egin eban topo. Enpresa honek tona bakoitxeko 200 euro emongo eutsazan trukean. Albiste hau amarentzat pozgarria izan zan, baina zelan lortu hainbeste tapoi?

Hemen hasiko da gure eta gizartearen betebeharra, berriaz jabetu ginanean eta kontuan izanda haurrai deutsegun begirunea martxan jarri ginan.

Taldeka hasi ginan lanean,

talde bakoitxak betebeharrak bat eukan. Batzuek kartelak prestatu zituen, beste batzuek tapoia batzeako ontziak kokatu zituen eta beste batzuek egindako kartelak itsatsi zituen. Hau guztia irakasle baten begiradapean.

Pasabideak kartekez beteta geratu ziran egoeraren informazio guztia bilduz. Honeguz lortu gura gendua, guretzako esfortzu bako gauzea dana, Ronaneri bizitza asko erraz deikeo.

Gure idatziagaz ikuskaraz gura doguna da, akaso ikasten gabizenagaitik gai honen inguruan sensibilidade puntu bat daukagula, baita kursoan zehar

gure modulo baten gaixotasun hau landu dogulako be. Nor ez litzateke sensiblea izango haur bat gurgildun aulki baten ikusita? Ganera kontuan izan behar dogu Ronan bere egoeraz konziente dala eta badakiala denporeagaz grua lortzean ez badau ezin izango dala ohetik mobidu.

Haur hezkuntzako ikasleok, idatzi hau irakurri ostean espero dogu zeuok be zeuen ekarpena egitea, plastikuzko tapoia eskola edo proiektu honetan dabizen edozein ikastetxetara eroanez. Gaur Ronanek behar dau gure laguntza baina bihar agian zuk?



Kartelak ipini ditue ikastetxean ikasleak.



Laguntza eskeko kartela.

"Ronan-ek distrofia muskularra dauka eta eguneroko beharizanetarako garestia dan grua bat behar dau"

**K Kendall Languages**

Europa mailan sano ezaguna dan ingelerazko ziurtagiria lortu gura dozu?

**zatoz** Holan bada: %95eko arrakasta daukagu

Irakaslegoa oso prestatua dago eta gehienen ama hizkuntza ingelera da. Bagilean (ekaina) zentroan bertan egingo dan Trinity azterketara aurkeztu zintekiz. Enpresetarako ingelera.

Kendall Languages, jentea prestatzen

Elxalde 4 behea  
48.140 Igorre (Bizkaia)  
94 657 73 48  
www.kendall-languages.com

**ALDAMN JATETXEA Areatza**

Suspertu

Bartolome Deuna, z/g  
Areatza  
94 403 89 53

Sagardotegia Mena **TXARO** SAGARDOTEGIA

Baba jana  
Okula erreak  
Mena herriak

Karrantza

Las Torrelas, 11  
Tel. 94 680 61 77 - 607 58 49 97

**PINTURA TAILERRA**

**areatza**  
pintura y decoración, s.l.

Pintura lanak  
Goi mailako dekorazioa  
Industrial  
Fakradak  
Paperezatzea

eskatu aurrekontua konpromiso barik

Tailerra 94 426 16 58  
☎ 639 769 780 - 629 435 895  
**BASAURI**

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskera eta kulturearen alde

**Hamabostero Begitu zure etxean eta Arratia inguruko Hiztegia doban**

**Egin zaitez zeu be Begitu-lagun**

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ataratako produktuak. Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€ ■ 55€ ■ 75€

Moztu eta bidali helbide honetara:  
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48142 Artea

**ASESORIA Gorbeialde**

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfn. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

## IMANOL ATUTXA

**"Boligrafoa beti aldean darabildanez, 'tak' ideatxu bat etorten jata eta bozeto bat egiten dot"**

BEGITUKO denporapasen atala egiten dau Zeanuriko Imanol Atutxak. Modu kuriosoan sartu zan gurutzegramen munduan. Komikiak be asko gustatzen jakoz eta sortu dituan guztiakaz liburu bat egiteko asmoa dauka aurten. Lana eta zaletasuna bateratzeko ez daukala arazorik dino eta eta sano gustura sentiduten dala denporapasetan murgilduta.

Irati Urien

**Zelan egiten dozu gurutzegramak bat egiteko? Zelan bururatzan jatzu?**

Nik esperientzia nahiko handia daukat; izan be, Deian zazpi bat urtez ibili nintzan honetan. Lehenengoetan kosta egiten da apur bat baina gero hiztegi on bat badaukazu, berba asko gelditzen jatzuz buruan.

**Noz hasi zinan?**

1995 inguruan hasi nintzan. Komikiak entregetan joan nintzan Deiarda eta momentu haretan ez ebela dibujanterik behar esan eusten baina euskerazko gurutzegramak egiteko lanpostua bakan-te egoala. Lehenengotan pentsau neban gatxa izango zala baina danak animau ninduen eta holan sartu nintzan mundu honetan.

**Bitxia da gurutzegramak betetzen egon beharrean denporea pasetako, sortzean ibiltea.**

Bai, arraro egiten da lehenengoetan. Besterantza egitea, beste alderdi baten zagozala, beste mundu baten zagozala ikusten da.

**Gatxa da?**

Hasieran, bai. Kuadro baltzak segun non ipinten dozuzan, batzuetan errezago urtetan jatzu eta beste batzuetan burua apurtu eta azkenean aldatu egin behar da. Pazientzia behar da.

**Honetan ibiltzen zarienok, badaukazue alkarren barri?**

Ez. Nik neuk sikan ez daukat inorregaz hartu-emonik.

**Inork badauka lanbide mo-****duan?**

Ez dot pentsetan.

**Badakigu komikizalea zara...**

Bueno betidanik euki dot zaletasun hori. Txikitatik gustau jata marraztea. Komiki nahiko daukadaz, ehun eta piku inguru eta hareekaz liburutxu bat aterateko gogoa daukat aurten. Horrek ondo urten ezker, oraindino badaukadaz, pilo bat komiki. Momentuz jentek ez nau askorik ezagutzen, Zeanuri edo Arratia inguruan ez bada jentek ez daki zer egiten dodan baina badaukat gogoa liburu bat aterateko.

Boligrafoa beti aldean darabildanez, "tak" ideatxu bat etorten jatanean, bozeto bat egiten dot. Bozetoakaz karpeta piloa daukat.

**Komiki aretoetara joaten zara?**

Ez. Gauza gatxa da ingurutik holako zeozer topetea. Getxon urtero egiten da eta jente piloa egoten da. Ni, etxeko kontuakaitik be nahiko lotuta nago eta gatxa egiten jata mobidutea. Halanda be, niri horreek gauzok ondo iruditzen jataz.

**Ezagutzen dozu manga? Zer iruditzen jatzu? Gustetan jatzu?**

Beste estilo bat da, japoniarren asmakizuna. Estilo guztiak gustetan jataz, baina ez horretara dediketako beste. Nik neure estiloa daukat eta ez dot aldatu gura.

**Zelan bateratzen dozuz zaletasun honeek lanagaz?**

Ez da gatxa. Dana dala, gustauko litxakit egunean hiru-lau ordu ate-



ratea eta holan daukadazan bozeto guztiak egiten joatea. Egunero ordu erdi edo ordu bete ateraten dot.

**BEGITUN zure ataltxua daukazu...**

BEGITUKO ez da konpromiso handiegia. Deiarako egunero-egunero egin behar izaten nituan gurutzegramak. BEGITUN, oster, hamabostero egin behar dot eta horretarako ez daukat ezelangor arazorik.

**Zergaitik Iman Olatu?**

Izenetik eta abizenetik dator, Imanol Atutxa. "Txa" kenduta, beste berba biak zeozer esan gura ebe-la konturatu nintzan, "iman" eta

"olatu". Gustau egin jatan. Ez da nire izena ez ipintearren. Deian esaterako "Imanol Atutxa" ipinten neban beti. Komikietan be "Imanol Olatu" ipini gura dot. Ezkutu moduan geldituten da eta jente askok ez daki nondik datorren, nor dan egilea.

Pozik nago BEGITURAKO gurutzegramak egiten, Arratiarako gauza bat danez, poz-pozik.

Mahai jokoak be gurako neukez argitaratzea. Hiru edo lau lagunek osotutako taldetxu bat sortzea gurako neunke horretarako. Parte hartzeako interesa euki ezker, idatzi imanolatu@gmail.com helbidera.

*"Imanol Olatu, ezkutu bat moduan geratzen da, jente askok ez daki nondik datorren"*

Erreserbak egiteko: 94 657 27 05 edo 94 657 54 50  
Beharrezkoak dira txanoga, txankietak eta bainujantzia

Balneario Areatza  
Areatza

Hesperia Areatza  
Hotel Balneario

Martiak 19 – AITAREN EGUNA

Menu Berezia Hesperia Areatza Hoteleko Lur jatetxean

+  
Areatzako Iturburu zirkuitua

+  
Erlajetako masajea (15') edo gorputz estalketea

Prezio: 50€ / persona edo 95€ / bikoteko

20%-ko deskontua ganerako tekniketan  
Gela hartu ezker 24€ gehiago persona bakotxak

OPARTI BONUS